BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

569

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 9koa, Teknologiako zuzendariarena, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko abuztuaren 4ko Aginduan 2011. urterako ezarritako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena. Agindu horren bidez, Kooperatiba Ikerketarako Zentroen kategorian kreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteentzako laguntzak arautzen dira. KIZ Programa.

Diru-laguntza publikoak emateko, ezinbestean bete behar da publizitatearen printzipioa. Hori dela-eta, Kooperatiba Ikerketarako Zentroen kategorian kreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteentzako laguntzak (KIZ programa) arautzen dituen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko abuztuaren 4ko Aginduak honako hau xedatzen du: laguntzak emateko ebazpenak banan-banan jakinarazi beharko zaizkie interesdunei, eta horretaz gain, onuradunen eta emandako diru-laguntzen diru-zenbatekoen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Kooperatiba Ikerketarako Zentroen kategorian kreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteentzako laguntzak (KIZ programa) arautzen dituen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko abuztuaren 4ko Aginduaren 12. artikuluko 3. puntuan ezarritakoarekin bat etorriz, Teknologiako zuzendariak, honako hau

EBAZTEN DU:

Artikulu bakarra.– KIZ programa arautzen duen Aginduan 2011ko ekitaldirako ezarritako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzea, Teknologiako zuzendariak emandako Ebazpenean ezarritakoaren arabera (eranskinean zehazten diren esleipendunei ebazpen horren berri eman zaie). Laguntza horiek Kooperatiba Ikerketarako Zentroen kategorian kreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteentzat dira (KIZ programa), eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko abuztuaren 4ko Aginduaren bidez eta Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen 2011ko apirilaren 6ko Ebazpenaren bidez arautzen dira.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 9a.

Teknologiako zuzendaria,
EDORTA LARRAURI TERÁN.

ERANSKINA

KIZ PROGRAMAKO ONURADUNAK

Erakundea:	2011	2012	Guztira
Fundación Centro de Investigación Cooperativa de Energías Alternativas CIC energiGUNE	1.000.500	2.736.500	3.737.000
Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Biociencias CIC bioGUNE	3.636.000	2.429.700	6.065.700
Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Biomateriales CIC biomaGUNE	4.500.000	3.197.274	7.697.274
Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Nanociencias CIC nanoGUNE	1.780.000	2.580.000	4.360.000
Asociación de Investigación Cooperativa en Turismo CIC tourGUNE	716.324	1.004.034	1.720.358
Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Micronanotecnologías CIC microGUNE	187.633	830.776	1.018.409
Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Fabricación de Alto Rendimiento CIC marGUNE	179.543	221.716	401.259